

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### Partaidetza teknikari lanpostua betetzeko deialdia eta oinarriak

Amurrioko Udalak, alkatearen 2025eko urtarrilaren 3ko ebazpen baten bidez (2025/5 Dekretua), partaidetza teknikari lanpostua betetzeko enplegu publikoaren eskaintza onetsi zuen. Hona hemen hitzez hitz haren edukia:

**LEHENENGOA.** Baimentzea 59.288,17 euroko urteko gastua (soldatak: 47.110,19 eta Gizarte Segurantzak: 12.177,98).

**BIGARRENA.** Onestea aurrekontu plantillan lanpostu huts bat betetzeko hautaketa prozesuaren deialdia eta prozesu hori arautuko duten oinarri espezifikoak. Lanpostu hori 2023ko ekitaldirako onetsitako enplegu publikoaren eskaintzan dago jasota eta ezaugarri hauek ditu: partaidetza teknikaria, A2 taldea, Administrazio Berezia, teknikarien azpieskala.

**HIRUGARRENA.** Deialdi honen xede den hautaketa prozesuari Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko azaroaren 4an egindako bileran hartutako erabakian xedatutakoa aplikatuko zaio. Erabaki horren bidez, Amurrioko Udaleko funtzionarioak hautatzeko prozesuaren deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dira (2021eko abenduaren 29ko ALHAO, 146 zk.).

**LAUGARRENA.** Iragarkia eta deialdia arautzen duten oinarri orokorrak eta espezifikoak ALHAOn eta [www.amurrio.eus](http://www.amurrio.eus) udal web orrian argitaratzeko agintzea, baita deialdiaren laburpen bat Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea ere; iragarki horren datak eskaerak aurkezteko epea zenbatzeko balioko du.

#### I. ERANSKINA

Deialdi honen xede den hautaketa prozesuari Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko azaroaren 4an egindako bileran hartutako erabakian xedatutakoa aplikatuko zaio. Erabaki horren bidez, Amurrioko Udaleko funtzionarioak hautatzeko prozesuaren deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dira (2021eko abenduaren 29ko ALHAO, 146 zk.).

#### II. ERANSKINA

##### OINARRI ESPEZIFIKOAK

##### LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen helburua da 2023ko ekitaldirako onartutako enplegu publikoaren eskaintzan jasotako udal korporazioko funtzionarioen aurrekontu plantillan hutsik dagoen lanpostu bat jabetza araubidean hornitzea.

LANPOSTUA	ZK.	AZPITALDEA	ESKALA	AZPIESKALA	HE	DERRIGORREZKOA	TXANDA
Partaidetza teknikaria	1	A2	Administrazio Berezia	Teknikariak	3	Bai	Txanda irekia

**BIGARRENA. OINARRI ESPEZIFIKOAK.**

Atxikitako eta gehitutako kasuan kasuko eranskinetan jaso dira Amurrioko Udaleko karre-rako funtzionario izateko hautaketa prozesuen oinarri orokorretan ezarritakoa osatzen duten oinarri espezifikoak. Horiek arautuko dituzte haietan ezarritako deialdia, hautaketa prozesuak eta sarbide sistemak.

**1. AZTERKETATASAK.**

Eskaerak aurkezteko garaian indarrean dagoen zerga ordenantzak arautuko ditu.

Izangaiek deialdi bakoitzeko ordaindu beharko duten kuota eskuratu nahi duten lanpostua-ren taldearen arabera ezarriko da, honi jarraikiz:

A2 taldea: 20,00 euro.

Eskaera egiteko unean langabezian dauden izangaiek % 50eko hobaria izango dute. Horre-tarako, enplegu txartela aurkeztu beharko dute, langabezian daudela egiaztatzeko.

Azterketa eskubideak eskaerak aurkezteko epe barruan ordaindu beharko dira, Laboral Kutxa banketxean kopurua sartuz edo transferentzia eginez, Amurriko Udalaren izenean, kontu korrante honetan: ES29 3035 0089 18 0890020005. Kopurua sartzean izangaia-aren izen-abizenak, NAN zenbakia eta lortu nahi duen plaza adierazi behar dira.

**1. PARTAIDETZA TEKNIKARIAREN LANPOSTUA.**

Lehenengoa. Deialdiko lanpostua.

Partaidetza teknikari lanpostu bat: 3. hizkuntza eskakizuna, derrigortasun datarekin; A sailkapen taldea; A2 azpitaldea; Administrazio Bereziko eskala; teknikarien azpieskala.

Bigarrena. Berariazko betekizunak.

Titulua: graduko unibertsitate titulua edo baliokidea.

Herritarren partaidetzako master ofiziala.

Hizkuntza eskakizuna: hirugarrena.

Hirugarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

Hauek izango dira kideak:

Epaimahaiburua: saileko teknikari bat, karrerako funtzionarioa dena.

Bokalak:

– Karrerako bi funtzionario.

– IVAPek izendatutako karrerako funtzionario bat edo lan kontratudun langile finko bat.

– IVAPeko euskara teknikari bat, euskara azterketa ebaluatzeko.

Idazkaria: udalbatzako idazkaria.

Laugarrena. Betetzeko era: oposizio-lehiaketa irekia.

A) Oposizio aldia.

1. ariketa: nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa.

Epaimahaiak gai zerrendarekin lotuta egindako zenbait galderari erantzun beharko zaie idatziz, ordubetean gehienez.

Ariketa honetan 4 puntu emango dira gehienez; gainditzeko, 2 puntu lortu behar dira.

2. ariketa: nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa.

Epaimahaiak lanpostuko zereginei buruzko ariketari ekin aurretik proposatutako kasu praktikoa bat edo batzuk garatu beharko dira, bi ordutan gehienez.

Ariketa honetan 6 puntu emango dira gehienez; gainditzeko, 3 puntu lortu behar dira.

3. ariketa: euskara azterketa; nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa.

Euskararen hirugarren hizkuntza eskakizuneko trebetasunen ezagutza egiaztatze proba izango da.

Bi kalifikazio baino ez daude: gai edo ez gai.

Eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen IVAPen ziurtagiria duten izangaiak salbuetsita egongo dira eta ez dute hizkuntza eskakizuna egiaztatze azterketarik egin beharko; halaber, salbuetsita egongo dira Euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatze azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan titulu baliokideren bat daukaten izangaiak.

B) Lehiaketa aldia.

Oposizio aldia gainditzen duten izangaiek agiri bidez eta modu frogagarrian egiaztatu beharko dituzte merezimenduak, horretarako emandako epean. Merezimenduak baloratzeko merezimenduen baremo hau aplikatuko da:

1. Lan esperientzia:

Izangaiek gehienez ere 3 puntu lor ditzakete atal honetan.

- Bete beharreko lanpostuari lotutako eginkizunetan eta partaidetza teknikari kategorian (A1 edo A2 taldea) administrazio publikoan lan kontratuaren bitartez edo funtzionario izendapenez emandako zerbitzuak. Gehienez ere 3 puntu, 0,06 puntu hileko.

- Bete beharreko lanpostuari lotutako eginkizunetan eta partaidetza teknikari kategorian (1. edo 2. kotizazio taldea) enpresa pribatuan emandako zerbitzuak. Gehienez ere 3 puntu, 0,03 puntu hileko.

2. Prestakuntza osagarria:

Izangaiek lortu nahi duten postuaren profilarekin lotutako gaiei buruzko prestakuntza osagarriatik gehienez ere 1,5 puntu lortu ahal izango dituzte atal honetan.

1. Parte hartze betekizun gisa eskatzen den titulazioaz gainera beste titulazio akademiko ofizial batzuk izatea baloratuko da, baita unibertsitateek edo unibertsitate eskolek emandako unibertsitate titulu propioak izatea ere.

Deialdiko lanpostuaren eginkizunak betetzeari zuzenean eta berariaz eragiten badiote baloratuko dira.

- Eskatutako titulazioaz gainera postuarekin lotutako beste titulazio batzuk izatea, lizentziatura, diplomatura edo gradu titulua (Goi mailako Hezkuntzako Kalifikazioen Espainiako Esparruko 2. maila): 0,50 puntu.

Unibertsitate ikasketa berberen ziklo desberdinak gainditu izana egiaztatzen bada, soilik bat baloratuko da.

- Eskatzen denaz bestelako master edo graduondokoengatik, lanpostuarekin edota genero berdintasunarekin zerikusia badute, gehienez 0,75 puntu:

15 eta 29 kreditu artean edo 150 eta 290 ordu artean: 0,15 puntu.

30 eta 59 kreditu artean edo 300 eta 590 ordu artean: 0,25 puntu.

60 eta 120 kreditu artean edo 600 eta 1.200 ordu artean: 0,50 puntu

120 kreditu baino gehiago edo 1200 ordu baino gehiago: 0,75 puntu.

2. Lanpostuarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikastaroak: 0,75 puntu gehienez.

Atal honetan lan arriskuen prebentzioari eta genero berdintasunari buruzko prestakuntza ikastaroak ere baloratuko dira.

Atal honetan epaimahaiak honako hauek soilik hartuko ditu kontuan: funtzionarioen prestakuntza eskola ofizialek (Administrazio Publikoaren Institutu Nazionala, IVAP, beste administrazio eskola batzuk, eta abar), elkargo ofizialek, unibertsitate publiko zein pribatuek, izaera juridiko publikoa duten zentroek edo udalak berak antolatu edo emandako prestakuntza jarduerak, baldin eta ezarritako denboran aurkeztu badira, behar bezala egiaztatu badira eta iraupena justifikatu bada, ordu kopuru osoa berariaz adieraziz.

Titulazio akademikoak lortzeko ikasketa planen parte den prestakuntza ez da baloratuko.

Prestakuntza ikastaroak ez dira kontuan hartuko egiaztatirietan ikastaro horien iraupena berariaz adierazten ez bada.

Gutxienez 10 orduko ikastaroak baloratuko dira, eta orduko 0,002 puntu emango dira.

### C) Praktikaldia.

Oposizio-lehiaketan puntu gehien lortu dituen izangaiak praktiketan jardun beharko du aldi batez, sei hilabetez gehienez ere. Praktiketako jardunaldia hautaketa prozesuko beste aldi bat izango da.

Aldi honetan izendatzen den izangaia praktiketako funtzionario izendatuko da; indarreko legerian ezarritako ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du, eta Gizarte Segurantzaren alta emango zaio, hain zuzen ere funtzionario diren langileei aplikatzen zaien araubidean.

Egoera horretan egongo da izendapen dekretuan adierazitako egunetik hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo aurreko aldietako batean deskalifikatu arte.

Ebaluazio prozedura jarraitua izango da praktikaldian, eta kalifikazioa "gai" edo "ez gai" izango da; hautaketa prozesuko aldi hori gainditzeko "gai" kalifikazioa lortu behar da.

Izangaiek lanpostuaren berezko egitekoetan jardutean erakusten duten gaitasuna baloratuko da.

Praktikaldian gutxienez bi ebaluazio txosten egingo dira, eta bigarrean jasotzen dena erabakigarria izango da praktikaldia amaitzean izangaiaren gaitasunaren inguruko adierazpena egiteko.

Praktikaldia gainditzen ez duten izangaiak, hau da, praktikaldiaren ebaluazioan "gai" kalifikazioa lortzen ez dutenak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira automatikoki; gainera karrerako funtzionario izendatzeko izan dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

Izangai baten praktikaldia amaitutakoan organo ebaluatzaileak beharrezko informazioa eskatuko dio haren arloko buruari eta gero izangaiaren gaitasunari eta prestutasunari buruzko txostena egingo du. Txostena epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaio eta hark izangaiak praktikaldia gainditu duen ala ez ebatziko du, eta izendapen proposamena bidaliko dio alkateari.

Praktikaldian dagoen izangai baten gaitasuna edo aprobetxamendua behar bezalakoa ez dela pentsatuz gero, haren izendapena praktikaldiko edozein unetan baliogabetu ahal izango da. Horretarako, izangaia lanean ari den arloko arduradunak proposamena bidali beharko dio hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileari eta hark, proposamena aztertu ondoren, izendapena baliogabetu behar den ala ez ebatziko du eta bidezkoa deritzon proposamena bidaliko dio alkate-lehendakariari.

## PARTAIDETZATEKNIKARI LANPOSTURAKO GAI ZERRENDA

1. Espainiako Konstituzioa (I). Oinarrizko eskubide eta betebeharrak (10-55 artikulua).
2. Udal antolamendua. Oinarrizko organoak: alkatea, alkateordeak, udalbatza eta gobernu batzordea. Organo osagarriak. Eskumenak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.-26. artikulua; Toki erakundeen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoaren araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 123., 124., 134., 135., 136., 137. artikulua).
3. Tokiko kide anitzeko organoen funtzionamendua: erabaki eta saioren araubidea. Aktak eta erabakien ziurtagiriak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46., 47., 51. eta 52. artikulua; Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.-52. eta 54. artikulua).
4. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. V. tituluko IV. kapituluak. Herritarrei informazioa ematea eta beraien parte hartzea. 69.-72. artikulua.
5. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina. Langile motak (8.-13. artikulua).
6. Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Enplegatu publikoen jokabide kodea (14.-54. artikulua). Zerbitzu harremana hartzea eta galtzea (55.-68. artikulua).
7. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina. Lanpostuak betetzea eta langileen mugigarritasuna. (78.-84. artikulua). Administrazio egoerak (85.-92. artikulua). Diziiplina araubidea (93.-98. artikulua).
8. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina. Baimenak (48.-49. artikulua).
9. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina. Mugigarritasuna genero indarkeriatik eta terrorismo indarkeriatik (82. artikulua).
10. Administrazio prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena. Xedapen orokorrak (1.-2. artikulua). Prozeduran interesdun direnak (3.-12. artikulua). Jarduketa arau orokorrak (13.-28. artikulua). Epemugak eta epeak (29.-33. artikulua).
11. Administrazio prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena. Egintzen betekizunak (34.-36. artikulua). Egintzen efikazia (37.-46. artikulua). Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna (47.-52. artikulua).
12. Administrazio prozedura erkidea. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena. Prozedurako interesdunen eskubideak. Prozeduraren faseak: aurretiazko jarduketak, behin-behineko neurriak, hasteko moduak, eskaeraren edukia, eskabidea zuzendu eta hobetzea, erantzukizunpeko adierazpena eta komunikazioa. Prozeduraren antolamendua. Instrukzioa (53.-83. artikulua).
13. 39/2015 Legea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenarena. VI. titulua. Legegintza ekimena eta erregelamenduak eta bestelako xedapenak emateko ahala. 133. artikulua. Herritarrek lege mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea.
14. Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuak buruzkoa, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora eramaten baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak. Sektore publikoaren kontratazioari buruzko xedapen orokorrak (28.-43. artikulua).

15. Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuak buruzkoa, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora eramaten baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak. Kontratuak prestatzea (115.-130. artikulua).

16. Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuak buruzkoa, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora eramaten baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak. Kontratuak adjudikatzea (131.-171. artikulua).

17. Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuak buruzkoa, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora eramaten baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak. Hornidura kontratua eta zerbitzu kontratua egikaritzea (298.-315. artikulua).

18. Datuen babesa. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko. Xedapen orokorrak (1.-3. artikulua). Datuak babesteko printzipioak (4.-10. artikulua). Pertsonen eskubideak (11.-18. artikulua).

19. 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30koa, sektore publikoan bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onesten duena. Xedapen orokorrak (1.-4. artikulua). Administrazio espediente elektronikoa (46.-53. artikulua). Dokumentuak elektronikoki artxibatzea (54. eta 55. artikulua).

20. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (12.-20. artikulua).

21. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. III. kapitula. Eskubideak eta betebeharrak (14.-29. artikulua).

22. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. V. kapitula. Langileak kontsultatzea eta langileen partaidetza (33.-40. artikulua).

23. 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. VI. tituluko IV. kapitula. Herritarren parte hartzea (67.-82. artikulua).

24. 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerakoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko. I. titulua. Botere publikoen jarduna.

25. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batagina onesten duena. I. titulua.

26. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batagina onesten duena. II. titulua.

27. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batagina onesten duena. III. tituluko I., II., III. kapituluak eta III. tituluko VI. kapitula.

28. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa. Atariko titulua, I. eta II.

29. Amurrioko Udaleko zainketen interpretazio esparrua eta Amurrioko Udalaren zainketa estrategiaren garapenean egindako bidea. Diagnóstico de la situación de cuidados en el Ayuntamiento de Amurrio: <https://www.berrituz.eus/eu/biblioteca/diagnostico-de-la-situacion-de-los-cuidados-en-el-ayuntamiento-de-amurrio/bi-572605/>.

30. Amurrioko Udalaren zainketa estrategiaren dimentsioak, irizpideak eta eremuak: <https://amurrio.eus>.

31. Parte hartzea berdintasun planen diseinuan, programazioan eta ebaluazioan: [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_recursos/eu\\_emakunde/adjuntos/guia\\_plan\\_local\\_igual\\_eu.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_recursos/eu_emakunde/adjuntos/guia_plan_local_igual_eu.pdf).

32. Tokiko jaietan emakumeek berdintasunez parte hartzea sustatzeko estrategiak. Emakumeen parte hartzea sustatzeko gomendioak. Euskal Autonomia Erkidegoko herrietako jaietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko estrategiak: [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes/eu\\_emakunde/adjuntos/txostena\\_46\\_emakumeen\\_parte\\_hartzea\\_eae\\_jaiak.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/eu_emakunde/adjuntos/txostena_46_emakumeen_parte_hartzea_eae_jaiak.pdf).

33. Komunikazio ez sexistarako dekalogoia, publizitate eta komunikazio e sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa: [https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/7168/Codigo\\_Deontologico\\_eu.pdf?1446207170](https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/7168/Codigo_Deontologico_eu.pdf?1446207170).

34. Gaiaren egoera: Eraikuntza espazioa. Sustatzaileak. Prozesu parte hartzaileen protagonistak eta edukiak. Eragina herritarren/demokrazian. Parte hartzearen sustatzaileak. La participación: Estado de la cuestión: [https://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/196/Cuaderno\\_de\\_trabajo\\_39.pdf?1488539718](https://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/196/Cuaderno_de_trabajo_39.pdf?1488539718).

35. Zer da partaidetza prozesu bat? Zer gutxieneko baldintza bete behar ditu partaidetza prozesu batek? Nola bereizten ditugu eztabaida prozesuak gaur egun baterako kudeaketa edo baterako sorkuntza esaten diogunetik?. Guía sobre participación ciudadana en planes y programas públicos (Ministerio de Hacienda y Función Pública): [https://www.hazlab.es/system/files/2023-11/GUIA\\_PARTICIPACION\\_EN%20PLANES%20Y%20PROGRAMAS\\_definitiva.pdf](https://www.hazlab.es/system/files/2023-11/GUIA_PARTICIPACION_EN%20PLANES%20Y%20PROGRAMAS_definitiva.pdf).

36. Herritarren batzarren funtsezko elementuak. Herritarren batzarren eta eztabaida prozesuen helburuak. Asambleas ciudadanas y procesos deliberativos Lecciones de las Sesiones de Aprendizaje entre Pares OIDP 2024: <https://www.oidp.net/docs/repo/doc1577.pdf>.

37. Partaidetza prozesu bat gauzatzeko gomendioak. Partaidetza prozesu batean saihestu beharrekoak. Guía de “Primeros Auxilios” para un proceso participativo Qué Sí y qué NO hacer (Dirección General de Gobernanza Pública del Ministerio de Hacienda y Función Pública). <https://www.hazlab.es/system/files/2023-02/1-%20Gu%C3%ADa%20Primeros%20Auxilios%20Participaci%C3%B3n-1.pdf>.

38. Liburu zuriaren printzipioak: sustatzen duen gobernantza eredua. Parte hartzearen dimentsioak. Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko liburu zuria (EJ): [https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/5631/Libro\\_Blanco\\_DyPC\\_Un\\_punto\\_de\\_partida\\_eu.pdf?1418978019](https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/5631/Libro_Blanco_DyPC_Un_punto_de_partida_eu.pdf?1418978019).

39. Funtsezko urratsak eta beharrezko baldintzak, partaidetza-prozesua garatzeko estrategian. Nola egin kalitateko partaidetza-prozesua (Eudel): [https://www.eudel.eus/eu/file/libro\\_ficheros/21\\_GIDA.pdf](https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/21_GIDA.pdf).

40. Topaketari bide ematea eta herritarren lurraldea ezagutzea. Parte-hartzearen korapiloak (Innobasque): <https://www.innobasque.eus/eu/publicaciones/parte-hartzearen-korapiloak/>.

41. Saio bat gauzatzeko pauso nagusiak eta tresnak. Taldeen dinamizatorako gida (GFA): [https://www.gipuzkoa.eus/documents/917770/0/EUS\\_GFA\\_Taldeent%20dinamizatorako%20gida.pdf/1d220136-9216-ba69-9f02-5de44e787db7?t=1708066725818](https://www.gipuzkoa.eus/documents/917770/0/EUS_GFA_Taldeent%20dinamizatorako%20gida.pdf/1d220136-9216-ba69-9f02-5de44e787db7?t=1708066725818).

42. Parte hartze prozesu bat ebaluatzeko galderak. Administrazio Publikoetan Parte Hartzeko Prozesuak Ebaluatzeko Eredua (EJ): <https://es.slideshare.net/slideshow/administrazio-publikoetan-parte-hartzeko-prozesuak-ebaluatzeko-eredua/58145064>.

43. Feminismoa, interseksionalitatea eta komunitate-zaintzak partaidetza prozesuen ebaluazio esparru gisa. Zer lortu nahi den partaidetza politikekin. Ekintza politikoa ulertzeko beste molde batzuk bilatzea. Ebaluazio-gida. Iruñeko Udalaren partaidetza-politikak ebaluatzeko tresna praktikokoak: [https://participa.pamplona.es/wp-content/uploads/2018/11/GUIA\\_EVALUACION\\_EUS.pdf](https://participa.pamplona.es/wp-content/uploads/2018/11/GUIA_EVALUACION_EUS.pdf).

44. Esperientzia justizia sozialari dagokionez kalitatez garatzeko tresnak: irisgarritasuna, gaikuntza, sormena, inklusioa, gardentasuna eta zeharkakotasuna. Ebaluazio-gida. Iruñeko Udalaren partaidetza-politikak ebaluatzeko tresna praktikoak: [https://participa.pamplona.es/wp-content/uploads/2018/11/GUIA\\_EVALUACION\\_EUS.pdf](https://participa.pamplona.es/wp-content/uploads/2018/11/GUIA_EVALUACION_EUS.pdf).

45. Parte hartze ikerketa-ekintza baten etapak eta faseak La investigación- Acción participativa. Estructuras y fases (Joel Martín): [https://www.redcimas.org/wordpress/wp-content/uploads/2012/08/m\\_JMarti\\_IAPFASES.pdf](https://www.redcimas.org/wordpress/wp-content/uploads/2012/08/m_JMarti_IAPFASES.pdf).

46. Esku hartze sozial eta komunitarioaren oinarriko printzipioak eta komunitatea finkatzen duten elementuak. Organización y desarrollo de la comunidad. Marco Marchioni. [https://extension.uned.es/archivos\\_publicos/webex\\_actividades/4698/acomunitariaponencia13b.pdf](https://extension.uned.es/archivos_publicos/webex_actividades/4698/acomunitariaponencia13b.pdf).

47. Ongizatea eta osasuna sortzen duen partaidetzarako printzipioak. Ongizatea eta osasuna sortzen duen partaidetzarako gida. Partaidetza-prozesuetan osasunaren ikuspegia txertatzeko orientabideak (EJ). Oinarriko printzipioak. [https://www.ogp.euskadi.eus/contenidos/proyecto/ogp\\_compromiso\\_3/eu\\_def/adjuntos/Ongizatea\\_eta\\_osasuna\\_sortzen\\_duen\\_partaidetzarako\\_gida.pdf](https://www.ogp.euskadi.eus/contenidos/proyecto/ogp_compromiso_3/eu_def/adjuntos/Ongizatea_eta_osasuna_sortzen_duen_partaidetzarako_gida.pdf).

48. Ekintzarako ikuspegiak haurren eta nerabeen parte hartzean. Cuadernos para la acción. Claves para fomentar la participación infantil y adolescente (UNICEF España): <https://ciudades-amigas.org/documentos/cuaderno-participacion/>.

49. Hiri hezitzaileen printzipioak: hiriaren konpromisoa. Carta de ciudades educadoras: [https://www.edcities.org/wp-content/uploads/2020/11/ES\\_Carta.pdf](https://www.edcities.org/wp-content/uploads/2020/11/ES_Carta.pdf).

50. Eskoletako jolastokiak eraldatzeko proiektu parte-hartzaileen garapen faseak. Eskoletako jolastokiak eraldatzeko proiektu parte-hartzaileak egiteko gida (EJ). Proiektuaren garapen faseak. [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/patios\\_escolares/eu\\_def/adjuntos/eskoletako\\_jolastokiak\\_GIDA.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/patios_escolares/eu_def/adjuntos/eskoletako_jolastokiak_GIDA.pdf).

51. Desberdintasun ardatzak. Desberdintasun ardatzei, askotariko diskriminazioari eta interseksionalitateari heltzeko moduak. Guía para incorporar la interseccionalidad en las políticas locales. <https://igualtatsconnect.cat/wp-content/uploads/2019/09/Publicacion-Igualtats-Connect-ES.pdf>.

52. Arrakala digitala herritarren partaidetzan. Arrakalarik gabeko ekimen digitalak sortzeko printzipioak eta faseak. Arrakalarik gabeko ekimen digitalak sortzeko gida (GFA): <https://www.gipuzkoa.eus/documents/917770/64145661/Arrakalarik%20gabeko%20ekimen%20digitalak%20sortzeko%20gida/545831aa-599f-c544-4866-702675f3a382?t=1708946108717>.

53. Partaidetzako prozesu bidez, balio etikoak adosteko eta gatazka etikoak bideratzeko aukera. Kultura etikoa erakundeetan gida: [https://www.gipuzkoa.eus/documents/917770/0/Online+Kultura+Etikoa\\_EU.pdf/a28ce355-d38c-4614-049b-a8514241bece?t=1709278595443%20https://youtu.be/EnpITLoC710%20https://www.youtube.com/watch?v=WhkbDgMTWgA](https://www.gipuzkoa.eus/documents/917770/0/Online+Kultura+Etikoa_EU.pdf/a28ce355-d38c-4614-049b-a8514241bece?t=1709278595443%20https://youtu.be/EnpITLoC710%20https://www.youtube.com/watch?v=WhkbDgMTWgA).

54. Amurrioko herritarren partaidetza araudia. II. tituluko I., II., III. eta IV. kapituluak. Herri-tarren eskubideak (3. 16. artikulua): <https://udala.amurrio.eus/eus/udal-administrazioa/akordioak-eta-araudiak/udal-ordenantzak/467-amurrioko-herritarren-partaidetza-araudia>.

55. Umeen Elkargunearen oinarriak. Amurrioko Umeen Elkargunea: [https://udala.amurrio.eus/attachments/article/572/Eskuorri\\_eus.pdf](https://udala.amurrio.eus/attachments/article/572/Eskuorri_eus.pdf).

56. Udal Planeamenduaren Aholku Kontseiluaren eraketa, eginkizunak eta helburuak, eta osaera (1., 4. eta 5. artikulua). Amurrioko Udal Planeamenduaren Aholku Kontseiluaren araudia: <https://udala.amurrio.eus/eus/udal-administrazioa/akordioak-eta-araudiak/udal-ordenantzak/468-amurrioko-udal-planeamenduaren-aholku-kontseiluaren-araudia>.

57. Amurrioko Ekin Amurrioko partaidetzako aurrekontuak: <https://amurriokoekin.eus/>.



58. Amurrioko Adinekoen Kontseilu Sektoriala: [https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/lagunkoia\\_consejo\\_mayores\\_amur/eu\\_def/Consejo-mayores-Amurrio\\_EU.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/lagunkoia_consejo_mayores_amur/eu_def/Consejo-mayores-Amurrio_EU.pdf).

59. Amurrioko auzo batzarrak: <https://amurrio.eus>.

60. Amurrioko udalerraren ezagutza orokorra: azpiegiturak, auzoak, kultura instalazioak, elkarte eta jarduera kultural esanguratsuenak, argitalpenak eta komunikabideak: <https://amurrio.eus>.

Amurrio, 2025eko urtarrilaren 10a

*Alkatea*

*JOSE RAMÓN MOLINUEVO LAÑA*